

Liburuak

KRITIKA

Sumendiaren azpian. Malcolm Lowry.
Alberdania-Elkar. 545 orrialde. 19,95 euro.

Helduen literatura
Amalia Alvarez Uria



Zurrut! Edan edo... klik

LEKUA-GEOFFREY: E. M. Forsterren India edo J. Conraden Kongo bezala ikusiko dugu Lowryren eskutik Mexiko; bertan bizi den kanpotarraren, klase-ertaineko-gizon-zuri-kristau baten begietatik. Baina lan honetan kolonizatzailearen kontzientzia duen protagonistak deskribatuko dizkigu Mexiko eta bere jendea. Geoffrey Firmin Mexikoko britainiar kontsula da. Bere inperioak nolabaiteko erretreta eman dio, hara bidalita arazo gutxi emango dituelakoan.

Lurreko paradisia aurkituko du Geoffreyk Mexikon, baina baita infernua ere. Popocatepetl eta Ixtaccihualt sumendien magalean dagoen lurraldean kokatzen da narrazioa. Kontsulak, bere emazte Ivonnek eta bere anaia Hughek Defuntuen Eguna elkarrekin pasako dute, iluntzean lehenengo biak hilko diren arte. Barne baka-rrizketa eta flashbacken laguntzaz ezagutuko ditugu hiru pertsonaien bizitzak, euren poz, beldur, damu eta zamak.

DENBORA-HUGH: 1938ko azaroaren lehenen da eta jai-egunaren hotsek narrazioaren soinu banda osatzen dute. Doluz jantzitako alargunak, jostailuzko eskeleto saltariak eta bonboizko burezurak agertzen zaizkigu, zeruan hegan dabilzan putreen, kaleko txakur deslaien eta sumendien begiradapean. Kontsul alkoholikoak aurreko eguneko dantzaldian larregi edan zuen. Hori dela eta, Defuntuen Egunean ajea, delirium tremensa eta mozkorra elkartuko zaizkio Ivonne eta Hughen bisitekin batera.

Garai hartako historiari erreferentzia ugari egiten dizkio Lowryk, batez ere Hugh pertsonaiaren bidez. Kaze-

taria da Hugh eta Espainiako gerra zibilean Errepublikaren aldeko nazioarteko brigadetan parte hartu ez izanak min handia ematen dio. Ospea lortu nahian gitarrarekin kantu pare bat grabatu zituen gaztetan, baina ez zen aurrera atera eta garai horretako bizipenak gogoratzean antisemitismoa eta Hitler darabiltza hizpide.

GAIA-IVONNE: Granadan elkar ezagutu eta ezkondu ziren Ivonne eta Geoffrey. Azken urtea bananduta pasatu zuten. Ivonne Mexikora bueltatu da, kontsularengana, itxaropen handiarekin. Hawaiikoa da eta oso gazte hasi zen filmetan aktore, bere aita ez zelako gai etxera dirua eramateko. Westernak egiten zituen eta oso amazona ona zen. Gero astronomia ikasi zuen unibertsitatean. Landa eremura joan nahi du kontsularekin etxalde batean bizitzera.

Heriotza da nobelan gehien azaltzen den gaia; horrekin batera bizitza edo maitasuna: *Eros* eta *Thanatos*. Kontsula maldan behera doa alkoholaren labirintuan Danteren infernua murgildu arte: Parianen, sumendien azpiko basoz inguratutako herrian, Farolito taberna dago. Bertan mezkala edaten egongo da kontsula heriotzak harrapatuko duen arte. Ivonneren maitasunak salba dezake, baina azkenean dena okertuko da. Liburuan errepikatzen den esaldietako bat da "maitasunik gabe ezin daitekeela bizi".

Nahiko motel hasten da liburua, baina erritmoa hartzen joango da. Kapitulu batzuk benetan biziak dira. Behin eta berriz berridatzi zuen Lowryk lan hau eta geruza ugari agertzen zaizkigu irakurketan. Beraz, liburua amaitzean berrirakurtzeko gogoia piztuko zaizu lehen irakurraldian galdutako ñabardurak jaso ahal izateko. Oso deskribapen bereziak egiten ditu, girotze ederrak eta mundu magiko eta eldarniozkoa izugarri ondo helarazten du. Laster etorriko den Defuntuen Eguna girotzeko edota gabonetan irakurtzeko aproposa, etxean denboraz eta giro epelean gozatzeko liburu mardula.

Jakin aldizkariaren zenbaki berria

Bi gai nabarmendu ditu *Jakin* aldizkariak bere 167. zenbakiko azalean. Batetik Miel A. Elustondo kazetariak Balendin Lasueni egindako elkarrizketa; bestetik Iratxe Retolaza literatur kritikariak Joxe Austin Arrietaren *Terra Sigillata* nobelari buruz idatzitako analisi sakona.

Aurpegi anitzeko gizona da Balendin Lasuen: idazlea, musikazalea,

politikaria, enpresaria, Gerediaga elkartearen kidea... Euskal Herriaren historia bizia, aldizkariaren editoreek nabarmendu duten moduan. Lasuenek bere bizitzaren errepaso egin du Elustondorekin hizketan; herri honen bizitzaren errepaso ere badena, bistan denez.

Iratxe Retolazak berriz, Arrietaren azken nobelak hedabideetan jaso duen arreta eskasa azpimarratu du bere analisiaren hasieran. Ondotik, liburuari aurkitu dizkion irakurbide

posibleetan murgildu da, *Terra Sigillata* idazlearen urrats estetiko berri bat dela nabarmenduz.

Aldizkariaren bukaerako partean *Egunen gurpilean* saileko gogoetak aurkituko ditu irakurleak, ohiko moduan.

Jakin 167.
Batzuen artean.
132 orrialde.
9,95 euro.

